



Busturialdea Fonética Histórica Vasca-n

Ariane Ensunza Aldamizetxebarria

► **To cite this version:**

Ariane Ensunza Aldamizetxebarria. Busturialdea Fonética Histórica Vasca-n. 2011. <artxibo-00698793>

HAL Id: artxibo-00698793

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00698793>

Submitted on 17 May 2012

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Busturialdea *Fonética Histórica Vasca*-n¹

Ariane Ensunza Aldamizetxebarria
EHU-UPV
ariane.ensunza@gmail.com

0. Sarrera

Aurrean daukagun lan honetan, Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca (FHV)* hartuko dugu oinarritzat. Mitxelenaren doktorego tesia izan zen lanean Busturialdeko hizkeren gainean esaten dena bilduko dugu eta ahal den neurrian ekarpenak egiten ahaleginduko gara. Mitxelenaren tesia argitaratu zenetik 30 urte baino gehiago pasa dira eta tarte horretan ikerketek aurrera egin dute eta hauei esker euskararen historiaz Mitxelenak eskaini zuen ezagutza zabaldu egin da. Nolanahi ere, oraindik gutxi da Busturialdeko euskararen historiaz dakiguna, ikerketak urriak izan baitira. *FHV* egiteko, datu asko erabili zituen Mitxelenak bere lanean, euskalki guztiak kontutan izateaz gain, herrietako aldaerak ere gogoan izan zituelako eta Busturialdeko hainbat herritako datuak ere izan zituen eskuartean.

Esan bezala, Mitxelenaren tesia oinarri hartuta ondorengo urteetan ikergai izango dugun Busturialdeko hizkeraren inguruan esaten dituenak bilduko ditugu eta norberaren ezagutzak Mitxelenaren lanari egin diezaiokeen ekarpena gehitu. Lan gehienetan hautaketak egin behar izaten dira jorratu beharreko gaietan eta, honetan ere, egin da aukeraketa: *FHV* osoa kontuan izan dugun arren, bokalen atalari erreparatuko diogu lan honetan; alde batetik, badagoelako zeresan nahikoa hauetaz eta, bestetik, dena aipatzeak luzeegi joko zukeelako. Beraz, lehenengo eta behin bokalen inguruan Mitxelenak dioena laburbilduko dugu eta, *FHV*n bezala, diptongoak eta hiatoak bakoitza bere aldetik aztertuko ditugu, beti ere Busturialdeko hizkeran jarriz arreta.

Hizkuntzaren historiari erreparatzea ere garrantzitsua dela deritzogu, horregatik, gure esperientzia eta jakintzatik abiatzeaz gain, XVIII. mendeko Gandara eta De la Quadraren testuak ere izango ditugu oinarri. Lehenengoa Gernikarra dugu, Jose Antonio Arana Martijaren arabera (*Euskera*, 1984), 1700 urtearen inguruan jaio zen eta 1780

¹ 2010-2011 urtean Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologiako masterreko *Hizkuntzalaritza diakronikoa keta hizkuntzaren historian espezializatzeko mintegia I* izeneko ikasgaiari Joseba Lakarrentzat egindako lana da honako hau.

inguruan hil. Bigarrena, ostera, Gidor Bilbaok dioskunez (*ASJU*, 1998), Nicolás Manuel de la Quadra 1713an jaio zen, jatorriz Bilbokoa zen, eta 13 urtera arte, behintzat, Bilbon bizi izan bazen ere, 1784ko *Doctrina* Bermeoko frantziskotarren komentuan sinatu zuen eta bertan esaten denez, inguru horretako hizkera ahalik eta fidelen islatzen ahalegindu zen. Gainera, autore bakoitzak testu bat baino gehiago idatzi zituen, beraz, bada konparaketarako gaia ere. Honekin, gaurko datuak emateaz gain, XVIII. mendeko datuak ere eman ahal izango ditugu, eremu hauetako hizkerek jasan duten bilakabidea argiago ikusten lagunduko digutenak.

1. Orokortasunak bokalez

Mitxelenak dioen bezala, euskarazko aldaera gehienek bokal sistema sinplea daukate, gaztelaniakoaren oso antzekoa. Sistema hau bost fonemak eta hiru graduko irekierak osatzen dute: /i, e, a, o, u/. Zubererak eta honen ondoko hizkerek soilik daukate aurreko bokal biribildu itxia: /y/, beraz, honi dagokionez aztergai dugun hizkerak, Busturialdekoak, ez dauka esatekorik. Esan bezala, euskarazko bokalak gaztelaniakoen oso antzekoak dira, baina antzekotasun hau ez da soilik sistemikoa, gauzatze fonetikoa ere antzekoa baita bi hizkuntzetan. Hala ere, oin-ohar batean honako hau diosku Mitxelenak (47. or):

“En cuanto a las variantes fonéticas, hay que advertir que hay variedades vascas que conocen realizaciones que se apartan bastante de las que son normales en las vocales castellanas, como la *a* «sensiblemente palatal, relajada y un poco labializada» que T. Navarro Tomás encontró en Guernica («Observaciones fonéticas sobre el habla de Guernica, 50 s.»). Variantes parecidas a ésta se hallan muy extendidas y los hablantes, a juzgar por sus respuestas (escritura), las consideran como realizaciones de /e/.”

Beraz, badirudi T. Navarro Tomasen arabera, Gernikako hizkeran badirela bestelako izaera bat duten bokalak. Hala ere, eremu honetako *a* horiek /e/-ren gauzatzeak direla diosku Mitxelenak oin-ohar berean eta, hizkera honetaz gaur egun daukagun ezagutzatik esan dezakegu hala dela; alegia, eremu honetako hiztun batek [pentsew] esaten duenean, ez dauka /pentsaw/ buruan, /pentsew/ baizik. Beraz, hiztun horrentzat /e/ argi bat da hor ahoskatzen dena, ez /a/-ren aldaera sabaikaritua. Aurrerago, hiatoen atalean ikusiko dugu Busturialdeko hizkeretan bokalekin gertatzen dena.

Bestalde, jakina da erronkarierak eta zubererak balio fonologikodun bokal sudurkariak ezagutzen dituztela eta badirela lekukotasunak XVI. mendeko bizkaieran ere bazirela erakusten dutenak. Madariagak (1565, *apud* Mitxelena 1977: 48) jada esana zuen «la *n* algunas veces se pronuncia en las narices, como en *oracioa, ardaoa*»... Horrez gain, Lakarrak (1996: 19) ere badio *RS*-etan lekukotasunak argiak direla, nahiz eta zeinu zehatz batekin ez markatu. Gaur egun, ordea, Busturialdeko hizkeretan –eta euskalki gehienetan– ez dago balio fonologikoa duen bokal sudurkaririk.

Mitxelenak dioen bezala, euskarazko bokaletan gertatu diren aldaketek bi ezaugarri nagusi erakusten dituzte, begi bistara kontraesankorrak ematen dutenak. Alde batetik, ondoko soinuek eraginda aldatzeko joera handia daukate, baina beste alde batetik, nahiko finkoak dira ez baitirudi aldaketa sakon edo orokorrik izan dutenik. Honen lekuko Akitaniako lekukotasunak zein toponimia ditugu, hauetan ikusten baita azken 2000 urteetan bokalak ez direla gehiegi aldatu: *CISON*, *ANDERE-*, *SEMBE-*, etab. (gehiagorako ik. Mitxelena 1977: 50-51). Jarraian azalduko ditugu luzeago Busturialdean bokalek jasan dituzten aldaketak.

2. Irekitzea eta ixtea

Esan bezala, euskaraz ondoko soinuek eragin handia dute bokalengan eta horregatik aldatzen dira tinbrez sarritan. Mitxelenak dioenez (1977:59), tinbre aldaketak maizago gertatzen dira hitz luzeetan, baina aldaketek morfema jakin batzuei bakarrik eragiten die eta oso zaila da hauen testuingurua eta zergatia azaltzea. Bestalde, Gavel eta T. Navarro Tomasen oharrek erakusten omen digute *i*, *e*, *o*, *u* bokalak laxoago eta irekiago ahoskatzen direla, erdialdeko euskalkietan behintzat, eta euskararen [a] gaztelaniarena baino sabaikariagoa dela. Mitxelenak ondorioztatzen duenez, nahiz eta gaztelaniaren eta euskararen sistema bokalikoak oso antzekoak izan, euskaraz fonema batzuk (*a*, *e*, *ɛ*, *i*, *o*, *u*) bereizten dituen muga lausoagoa da. Hala ere, Busturialdeko hizkera zehatz aztertuta esan genezake bertako hiztunentzat, behintzat, bokal fonologikoak bost baino ez direla eta Mitxelenak aipatzen dituen muga lausoak gehiago dagozkiela ezaugarri fonetikoei fonologikoei baino.

Busturialdeko hizkeretan, mendebaleko euskalkian eta erdialdekoan ere gertatzen den bezala, dardarkari aniztun batek bere aurreko bokala irekitzea eragiten du. Irekitzea testuinguru nahiko zehatzetan gertatzen da eta gehienetan *e* bokalarekin gertatzen da, *a* bokalera irekitzen baita. Mitxelenak dioskunez (1977:61), badirudi bokal honen irekitzea ez dela hitz hasiera absolutuan gertatu, bizkaierak *arri / erri, ardi / erdi, arbi / erbi*, gisakoak bereizten dituelako. Ohikoena bizkaierazko kasuak aipatzea bada ere, jakina da gertakari hau ezagutzen dutela mendebaleko euskalkitik kanpoko hizkeretik ere. Zuazoren arabera (2008:146), Euskal Herri osoko bilakabidea bada ere, erdialdeko euskalkietan du indar gehien, Mitxelenak *eguardi, eguarri* eta *Goyarri* bakarrik aipatu arren, *eskarrik asko, pipar, baztar, basarri, izardi, puzkar, iztar...* gisakoak ere esaten direlako.

Horrez gain, *a* bokala *e* bokalera itxi daiteke aurreko silabako *i* eta *u* bokalen eraginez. Mitxelenak dioskunez (1977:63), /a/-ren ahoskera ohikoa zenetik urruntzen joan da /e/-ren aldaera bihurtu arte. Hala ere, ixtea estuki lotuta ahoskatzen diren silabetan soilik gertatzen da. Bizkai sartaldekoko den XVII. mendeko *Viva Jesus* testuan aurki daiteke jada honen zantzurik, *ayte, Hostie, oguiie, Berdaderue, dogune*, etab. gisakoak irakur baitaitezke. XVIII. mendeko De la Quadra eta Gandararen testuetan, ordea, ez dugu horrelakorik; De la Quadraren testuan *gura, personia, oguija* gisakoak aurkitzen ditugu eta Gandararen testuetan ere *eguzquia, eguia, ceruac* gisakoak dauzkagu. Hau ikusita, badirudi ez dela ausarkeria proposatzea bilakabide hau Bizkai mendebaletik edo agian hegoaldetik zabaldu zela Busturialdeko hizkeretara. Hala ere, Mikoletaren testuan, behintzat, ematen du oraindik bilakabidea ez dagoela abian: *ysango, dogusanac, bedeyncatu, euracas*, etab. Aurrerago ikusiko ditugu sakonago Busturialdeko hizkeretan hiatok izan duten garapena. Baina esandakoa kontuan izanik, badirudi dardarkari aniztunaren aurrean dagoen *a > e* bokalera irekitzea zaharragoa dela azken bilakabide hau baino; izan ere, *izar > ixer, bular > buler* baitauzkagu gaur egungo Gernikako hizkeran, behintzat.

Bokal trukaketa gehienak, batez ere *a > e*, ondoko bokalen izaerak eragindako indukzio gertaeren ondorio dira, bai asimilazioak bai disimilazioak (Mitxelena 1977: 69). Mitxelenak gainontzeko euskalkietako adibideak ematen baditu ere, guk mendebaleko euskalkiari dagozkionak eta, beraz, Busturialdeko hizkeretan ere aurki

ditzakegunak soilik aipatuko ditugu: *azken*> *azkan*, *atera*> *atara*, *ote*> *ete*, *gezur*> *guzur*, etab.

3. Diptongoak

Mitxelenak berak dioen bezala, hizkuntzaren aldaera guztietan ezagunak diren diptongoak eta aitzineuskararako –uler bedi aitzineuskara berrirako– gutxienez proposa daitezkeenak *au*, *eu*, *ai*, *ei* eta *oi* dira. *ui* diptongoa urria izateaz gain bere izaera bigarren mailakoa dela froga daiteke eta bestetik, *ou* diptongoa ere ez da oso ohikoa euskaran, oso eremu txikian gertatzen baita *au* diptongoaren bigarren mailako bilakabide gisa. Azken honetaz, oin-ohar xume batean honakoa dio Mitxelenak (1977:87):

“En Villanueva de Aezcoa, según Azkue, *Aezkera* 86 s., mientras en las demás poblaciones en que se habla aezcoano se confunden *au* y *eu* en *au*. Según Navarro Tomás, en el vizc. De Guernica la vocal de diptongo *au* puede tener timbre palatal, aproximándose a *e* abierta, o velar, cercano a *o*. He observado lo mismo en un informador de Navárniz, población cercana a Guernica.”

Kritika txiki bat egitea zilegi bada, agian, oin-ohar hau *au* diptongoari ezartzea litzateke egokiena; izan ere, honen gauzatze fonetikoaz ari da, ez *ou* diptongoarenaz. Bestalde, Gernikan zein Nabarnizen *au* diptongoak tinbre sabaikaria izan dezakeela aipatzen da eta *e* irekitik edo *o* belarretik gertu dagoela honen ahoskera. Bada, gure esperientziatik eta jakintzatik esan dezakegu *au*> *eu* (>*e*, aleatorioki) bilakabidea burututa ikusten dugula gaur egungo Gernikako hizkeran, esate baterako honako adibideotan: *awntz*> *ewntz*, *gawza*> *gewsa*, *kantaw*> *kante(w)*, *topaw*> *tope(w)*, *jausi*> *jeusi*, etab. Gaur egun aurkitzen dugun *eu* diptongoa ez da, Navarro Tomásék edo Mitxelenak dioten bezala, *au* diptongoa oinarri duen gauzatze fonetiko bat, Gernikar batentzat (zein Muxikakoentzat, Forukoentzat, Mendatakoentzat...) *kanta(w)*, *topa(w)* gisakoak beste herri batzuetan (Bermeo, Mundaka, Gautegiz-Arteaga, Ereño, Ibarrangelu, Ea...) esaten baitira eta hiztunen jatorria bereizteko balio baitu tinbre desberdintasunak. Hala ere, bereizketa hau gaur egunekoa da, Gandara eta De la Quadraren testuetan, bietan aurkitzen baitugu oraindik *-au* diptongoa: *cantau*, *pagau*, *alcanzau*, etab.

Aditz laguntzaileekin, berriz, desberdintasunak aurki daitezke diptongoetan. Alde batetik, **edun* laguntzailearekin *daw*> *dew* bilakabidea gertatu da 3. pertsona singularrean eta *dawe*> *dabe* kontsonantetzea 3. pertsona pluralean. Mitxelenak dioenez “hay casos aislados de consonantización de *u* segundo elemento de diptongo ante consonante continua” (90. or), baina bokal aurean gertatzen denaz ez du ezer aipatzen. Agian hau izan daiteke horrelako adibide bat, baita iraganeko laguntzailearekin 3. pertsona singular zein pluralean gertatutako bilakabidea ere: *newan*> *neban*, *ewan*> *eban* (>*ban*) eta *ewen* > *eben* (>*b(i)en*). Lexikoan ere badirudi badela horrelako adibiderik, *eguerdi*> *ewerdi*> *eberdi* baitaukagu. *eduki*-ren adizkietan pertsona guztietan gertatu da *au*> *eu* bilakabidea: *daukot*> *dekot*, etab.

Beste alde batetik, *egon* aditz laguntzailearekin ez da (*dago*>) *daw*> *dew* bilakabidea gertatu, orain diptongoa den *au* hori garai batean *g* kontsonante igurzkari ahostunak bereizten baitzuen eta, horrez gain, bokalen tinbrea ere aldatu delako: *a-o*> *a-u*. Gandara eta De la Quadraren testuetan, adibidez, oraindik bokal tinbrea aldatu gabe aurki dezakegu eta bien artean kontsonantea: *gagoz*, *dago*, *nago*, *nagoan*. Badirudi kontsonante horren galerak ekarri duela bokal biak kontaktuan geratzea, tinbre aldaketa gertatzea eta, azkenik, diptongoa osatzea gaur egun, baita *au*> *eu* bilakabidea saihestea ere: *dago*> *daw*> ***dew*.

Hemendik guztitik ondoriozta daiteke *eu*> *eb* bilakabidea *au*> *eu*> *e* baino lehenagokoa dela eta, modu berean, *au*> *eu* gertatu zenean Gernikako hizkeran, behintzat, oraindik *dago* edo *dao* esaten zela. Testuek ere honen aldeko zantzuak ematen dituzte, Gandararen testuetan *eban*, *daben*, *neban* gisakoak aurkitzen baititugu jada, baina oraindik. Nolanahi ere den, *au*> *eu* bilakabidea lehenago gertatu zen erdialdeko euskalkian, gipuzkera zaharrean jada gertatua baita, baina Gandararen eta De la Quadraren testuetan, adibidez, ez. Honakoa dio Mitxelenak gipuzkera zaharreko lekukotasunez (1977:102):

“Las formas de presente del auxiliar transitivo guipuzcoano (*det*, *degu*, etc., vid. Supra, 4.3 y 6.) y sobre todo en guip. ant. (Pampl. 1610, O de Arin, Larramendi) y mer. *deu* ‘lo ha’ acusan *au*>*eu*, tal vez por el carácter enclítico del auxiliar.”

Aipu honetan esaten den bezala, *au>eu* bilakabidea gipuzkera zaharrea gertatuta dagoela ikusten da, Mitxelenak berak dioen bezala, agian aditz laguntzailearen izaera enklitikoagatik; izan ere, ez dugu bilakabide honen aztarnarik gipuzkera zaharreko gainontzeko lexikoan.

4. Monoptongatzea

Diptongo guztiak ez dira maiztasun berekoak euskalki guztietan eta honi gaineratu behar zaio oso ezegonkorrak direla. Esate baterako, Mitxelenak dio (103. or) kasu askotan *i*-dun diptongoek erregulariki galtzen dutela bigarren elementua. Bizkaierak (honen barruan Busturialdeko hizkerek ere), *-ain> -an* monoptongatu du (*ezpain> ezpan*, *gain> gan*, *orbain> orban*, *zain> zan*, *labain> laban*, *aingeru> angeru*), baita *-uin> -un* ere (*biguin> bigun*, *asuin> asun*). Lehenengoa, jada Gandara eta De la Quadraren testuetan ere aurkitzen dugu, *angueru*, *ganian*, etab. aurki baitaitezke bietan. Bestalde, mendebaleko hizkera batzuetako hitz batzuetan hurrengo kontsonantearen sabaikaritzea ekarriz murriztu da diptongoa. Gandara eta De la Quadraren testuetan ere aurki ditzakegu honen adibideak: *gach* ('gaitz'). Mitxelenak ematen dituen adibideotan ikus daitekeenez: *axe* 'viento', *nax* 'soy', *nox* 'cuándo', *elixa* 'iglesia', *gatx* 'mal, malo', *bakotx* 'cada uno', etab. Gernikako aldaerari dagokionez, ikus daiteke gaur egun jende helduak sabaikariak erabiltzeko joera duela, baina gazteengan joera hori desagertu egin dela eta *nas*, *nos*, *elisa*, *gatz*, *bakotz* formak erabiltzen baitituzte. Hala ere, gure zalantzak ditugu *nax* esaten ote den Busturialdean, guk ez baitugu entzun. Gainera, XVIII. mendeko De la Quadra eta Gandararen testuetan *naiz* eta *nas* formak baino ez ditugu aurkitzen. Mendebaleko *nas* adizkiaren bilakabidea *naiz> nax> nas* dela proposatzen du Zuazok (2008:73), baina gure ustez posible da beste azalpen bat ematea *nas*-i; izan ere, posible da *nas* formaren jatorria zuzenez *naiz* forman aurkitzen ditugun bokalen monoptongazioa izatea eta mendebaleko hizkeretan ezaguna den txistukariaren neutralizazioa gertatu izana tartean, baina honetarako, ordea, hizkeraz hizkera ezaugarri hauen kronologia egin beharko litzateke.

Hedadura handiko kasuetan diptongoaren bigarren elementua galdu edo aldatu egiten dela dio Mitxelenak, hurrengo silabako bokalak eragiten duen disimilazioaren ondorioz. Bizkaierarentzat *antxume* ‘cabrito’ <*auntxume*, *itandu* ‘preguntado’ <*itaundu*, *atari* ‘atrio, pórtico’ <**ata-iri* ‘cercañas de la puerta’, *jagi* ‘levantarse’ <*jaigi* eta *eguen* ‘jueves’ <**egue-un* aipatzen ditu, baina badira beste zenbait gehi daitezkeenak: *etarte/atarte* <*atearte*, *bariku* <**abaribakoegun*, etab. Nolanahi ere den, Mitxelenak diosku oso kasu gutxitan murrizten dela *au* diptongoa *o* edo *u* bokalera hitz barruan, behintzat. Honen adibidetzat euskalkietako *arraultza* hitzeko diptongoaren egonkortasuna aipatzen du, aezkeraz, goi eta behe nafarreraz, zaraitzueraz, Etxarriko gipuzkeraz eta Arabako testuetan soilik aurkitzen dugula *o* monoptongatua esanez. Gehituko genioke gaur egun, behintzat, Busturialdeko herri askotan *arrutza* esaten dela, *au* > *u* monoptongatuz.

Esan dugu lehenago *ui* diptongoa euskaran urria izateaz gain, maileguetan ere ez dela oso ohikoa eta, gainera, bere izaera bigarren mailakoa dela. Mitxelenak dioenez (1977:107), gehienetan sudurkari aurrean gertatzen da, beraz, ez dirudi jatorrizkoa denik, *oi* diptongotik eratorria baizik. Bestalde, *-doi*, *-dui*, *-di* talde atzizkian *oi (ui) / i* alternantzia dagoela diosku Mitxelenak, toponimian landare izenekin oso ohikoa dena:

“Hoy las formas en *-doi* son orientales (b. nav. Sal.; ronc. sul. *-dói* en *ezpeldói* ‘bojedal’. Etc., cf. *halztoya* Sauguis, *Voc.*), y las en *-dui*, usadas en el vizcaíno occidental (Arratia, Orozco), debieron estar extendidas también por Álava a juzgar por la toponimia y por *sagastui* ‘manzanal’ en Landucci.”(108. or)

Busturialdeko hizkerari buruz, ostera, ez du ezer aipatzen. Egia da inguru honetako toponimia eta antroponimian ohikoenak *-di /-ti* aldaeradunak direla: *elordi*, *sagasti*, etab., baina bada gutxienez bat *-dui* forma daukana: *sa(ga)rdui*. Beraz, Mitxelenak dioen bezala, mendebaleko bizkaieran aurki dezakegun forma hau Arabaraino hedatuta egoteaz gain, badirudi ekialderaxeago ere bazela.

5. Hiatoak

Mitxelenak dioen bezala (88. or.), diptongo guztiak ez dira maiztasun berekoak euskalki guztietan, hizkera batzuek oraindik hasperena gordetzen dutelako eta, beraz, *ahu*, *ehun*, *ahuntz* etab. duten bitartean, gainontzeko euskalkietan oro har diptongodun formak aurkitzen ditugu, hala nola, *awntz*, *ewn*, etab. Hala ere, hasperenik ez duten hizkera batzuetan talde hauek oraindik hiatoan ahoskatzen dira, Mitxelenak berak dioen bezala, bokal biak *g* edo *r* (disimilazioz *l* edo *n* eman dezakeena) batek bereiz ditzakeelako. Jarraian, Baztan, zaraitzuera eta Markina inguruko adibideak ematen ditu, baina gehituko genuke Busturialdean ere *g* tartekatzen dela kasu batzuetan: *ago*, *oge*, *iges* (iaz)... Navarro Tomás-en lanean ikus daiteke *abo* transkribatu duela ‘aho’rentzat eta transkripzio akatsa ez bada, pentsa genezake garai batean *b* ere izan zitekeela hitz horretan tartekatzen zen kontsonantea. Beste alde batetik, gorago bokalen inguruko orokortasunak azaldu ditugun atalean, lan honetara ekarri dugun Mitxelenak oin-oharra birgogoratzea komeni da:

“En cuanto a las variantes fonéticas, hay que advertir que hay variedades vascas que conocen realizaciones que se apartan bastante de las que son normales en las vocales castellanas, como la *a* «sensiblemente palatal, relajada y un poco labializada» que T. Navarro Tomás encontró en Guernica («Observaciones fonéticas sobre el habla de Guernica, 50 s.»). Variantes parecidas a ésta se hallan muy extendidas y los hablantes, a juzgar por sus respuestas (escritura), las consideran como realizaciones de /e/.”

Esan beharrekoa litzateke, hemen aipatzen den *a* sabaikari, erlaxatu eta ezpainkaritua Gernikako hiztun batentzat ez dela fonologikoa eta, beraz, ez direla hitz guztietako *a* guztiak horrela ahoskatzen, hizkera horretan badago-eta gaztelaniazkoaren antzekoa den beste *a* hori ere. Navarro Tomasek entzuten duen *a* sabaikari, erlaxatu eta ezpainkaritua, gaur egun /e/ baten gauzatzea da Busturialdean eta, Mitxelenak dioenaren arabera, nahiko hedatuta daude honen antzeko aldaerak. Hizkuntzaren historiari begiratzea nahikoa da Busturialdeko hizkerek jasan duten bilakabideaz konturatzeko. Horretarako, Busturialdean –eta bertatik kanpo ere, gehienetan– hiatoetan gertatzen diren emaitzak aztertuko ditugu banan bana.

Tinbre bereko bokal bi kontaktuan jartzean, emaitza orokorra tinbre hori duen bokal bakar bat da (salbuespenetarako ik. Mitxelena, 1977:110 eta hurrengoak). Puntu honetan ezin da aipatu gabe geratu Bermeoko hizkeran inesibo mugagabearen joskeran gertatzen dena. Mitxelenak oin-ohar batean (1977:111) Zeanuriko adibidea ematen du esanez aditz izenetako inesiboaren forma *-tzean* dela. Bada, gauza bera daukagu Bermeon ere, bertan *-tzien* forma baitauka Busturialdeko gainontzeko hizkeretan *-tzen* forma daukanak: *sartzien da, artzien dogu...* Beraz, kasu honetan Busturialdeko gainontzeko hizkerak jatorrizko *-tzeen* formaren bi bokalak monoptongatu badituzte ere, Bermeoko hizkeran tinbrea aldatu eta mantendu egin da hiatoa. Lekukotasunak oso urriak izanik, ezin genezake ezer segururik esan, baina hala ere, ematen du bilakaera hau ez dela arkaismo bat Bermeoko hizkeran, azken bi mende eta erdian gertatutako bilakabidea baizik; izan ere De la Quadraren testuan ez dugu honen arrastorik, bai ordea *arcen dot* bat, gaur egun *artzien dot* izango litzatekeena.²

Bokalez bukatzen diren hitzei artikulua gehitzean gertatzen diren aldaketak aztertuko ditugu jarraian. Alde batetik, *-a* bokalez amaitzen diren hitzei *-a* artikulua gehitzerakoan, mendebaleko euskalkian *-ea* disimilazioa gertatzen dela ikus daiteke lehenengo lekukotasunetatik. Bada, nahiko eremu zabalean pauso bat gehiago eman du bilakabide honek eta *-ia* disimilazioa gertatu da. Busturialdeko XVIII. mendeko testuetan badira honen adibideak, esate baterako, De la Quadraren testuetan eta Bermeoko XVIII. mendeko beste eskuizkribu batean³ honakoak aurki ditzakegu: *personia, alavia, esposia*, etab. Gandararen testuan, ostera, oraindik *-ea* aurkitzen dugu: *eusquerea, bervea, virjinearen*, etab. Bestalde, mendebalaren eremu txikiagoan (Busturialdea, Zornotza, Iurreta, Durango, Mallabia, Mendexa, Munitibar, etab.) urrunago heldu da bilakabide hau eta *-ia* > *-ie* egin da, aurreko bokal itxiak bere ondoko erdiko bokal irekia ixtea eragin du eta. Horrela, *euskerie, berbie, birjiñie, alabie*, etab. esaten dira Busturialde osoan. Esan beharrekoa litzateke *-ie* honetako bokal erdi-irekia ez dela /a/ baten gauzatze sabaikaria; Mitxelenaren hitzak neure eginez, «los hablantes, a juzgar por sus respuestas (escritura), las consideran como realizaciones de /e/».

Beste alde batetik, *o* bokalez bukatzen diren hitzei *a* artikulua gehitzean, emaitza desberdinak aurki ditzakegu Busturialdeko hizkeren artean. Hizkera gehienetan *oa* >

² Kontuan izan behar da, sarreran esan bezala, De la Quadra ez zela jaiotzez bermeotarra eta, gainera, adibidea bakarra dela.

³ Gidor Bilbaok (a.g.) De la Quadrarena berarena dela proposatzen du.

(*ua*)> *ue* bilakaera gertatu da, baina Gernikako eta Ajangizko hizkeretan, aldiz, *oa* mantendu da. Busturiako helduek *-ue* egiten duten arren, gazteek gero eta joera nabarmenagoa erakusten dute *-oa* egiteko, agian bizimodu soziala Gernikan egiten dutelako. Mendatako hiztunek ere, oro har, *-oa* egiten dute, baina Albiz auzokoek *-ue* egiten dute, seguraski Munitibar eta Durango aldera joateko joera handia dutelako (Mallea, 2002: 24). XVIII. mendeko Gandararen testuetan ere *-oa* aurkitzen dugu: *onguiroa, gogoa, gosoa, gustoa*, etab. De la Quadraren testuetan, ostera, *-oa* aurkitzeaz gain, *-ua* ere badago, beraz, badirudi XVIII. menderako Bermeon jada hiato honetako bokalen disimilazioa abian zela, gerora gaur egun erabiltzen den *-ue* asimilazioa eragingo zuena. Hona hemen De la Quadraren adibide zenbait: *benetacoa, osoa, gozoa, tentaciñoa, parebacoa*, etab. baina *derechua, gozua, preciosuari*, etab.

Aditz morfologian ere gauza bera dugu *joan*-en adizkietan; izan ere, Gernikan, Ajangizen eta ia Mendata osoan *joan* esaten da, baina Bermeon eta Mundakan *dxuen* esaten da eta gainontzeko herrietan *juan*> *juen* zein *jun*. Gandararen testuan ez daukagu honen adibiderik, baina pentsa daiteke orduan ere *joan* forma erabiliko zela. De la Quadraren testuan, ostera, *juango* daukagu, bokal disimilazioarekin jada.

Bestalde, *u* bokalez bukatzen diren hitzei *a* artikulua gehitzen zaionean, joera homogeneoa aurkitzen dugu Busturialdeko hizkeren artean, denetan ixten baita *a* bokala *e* bokalera: *burua*> *burue*, *maisua*> *maisue*, *artikulua*> *artikulue*... Hala ere, Gandara eta De la Quadraren testuei erreparatzen badiugu, ikus daiteke XVIII. mendean oraindik bilakabide hau ez zegoela abian. Gandararen testuetan honako adibideak aurki daitezke: *buruac, euscarichua, ceruac*, etab. De la Quadraren testuan, aldiz, *u* bokalez amaitzen diren hitzei *a*, *e* edo *o* bokala gehitzean, kontsonante epentetiko bat tartekatzen da bien artean, igurzkari ahostun ezpainkaria, hain zuzen. Hona hemen zenbait adibide: *santuben, cerubetan, santificaduba, erreinuba, frutuba, desterraduboc*, etab. Joera hau ez da Bermeoko XVIII. mendeko hizkera zehazten duen ezaugarria, mendebaletik kanpoko hizkerek ere ezagutzen baitute, beraz, garai batean eremu zabalagokoa zatekeen.

Azkenik, baina ez horregatik interes gutxiagokoa, *i* bokalarekin gertatzen denari erreparatuko diogu. Bokal honekin amaitzen diren hitzei *a* artikulua gehitzean, kontsonante epentetiko bat tartekatzen da Busturialdeko hizkeretan. Tartekatzen den

kontsonante honen izaera oso desberdina da herri batetik bestera. Honela dio Mitxelenak (1977:176):

“En la mayor parte de la zona de habla vizcaína y algunas poblaciones vecinas de dialecto guipuzcoano, **j* entre vocales aparece hoy como [(*d*)ž], que puede ir precedido de *i* más o menos claramente articulada. Esta pronunciación se descubre ya en RS...”

Eta honela jarraitzen du aurrerago (1977:177):

“Tanto en estos como cuando se trata de *j* que en muchas zonas se ha desarrollado como sonido de transición entre *i* y la vocal siguiente, (*d*)ž se ha ensordecido en š en vizc. de Guipúzcoa y de Marquina: *laixa* ‘laya’, Oñate *puxeta* ‘colada’ (Land. *puyata*), *barrixa* ‘lo nuevo’, etc.”

Busturialdean dagoen desberdintasunetan ez da sartzen eta, orokorrean (*d*)ž hotsa daukagula diosku. Gure ezagutzatik esan dezakegu, Busturialdeko kostaldeko hizkeretan –Bermeo, Mundaka, Elantxobe– daukagun soinua herskariagoa dela gainontzeko eremuan baino. Bestalde, Gernikako hizkeran, behintzat, heldu eta gazteen artean ere bada nolabaiteko aldea, helduek soinu ahostunagoa egiten baitute. Bestalde, Gandararen testuetatik 1768koan soilik aurkitzen dugu joera hau, *eguiya* aurki baitezakegu, baina baita *gustiac*, *vicia*, *barria* gisakoak ere. Testu hau denetan modernoena denez, badirudi garai horretan hasi zela *i* bokalarekin hiatoa osatzen zuen bokalaren artean epentesi bat tartekatzen. De la Quadraren testuan oso hedatuta aurkitzen dugu joera hau. Hona hemen adibide batzuk: *oguija*, *gustiyen*, *erruquijen*, *errosarijo*, *gracija*, etab. Ikusten denez, De la Quadrak berak grafia desberdina erabiltzen du hots hau adierazteko, bai *y* bai *j* erabiltzen dituelako. Soinu horren izaera bokalardi sabaikariaren berdina zatekeela dirudi, baina ezin dugu ondorio segururik atera hemendik.

6. Amaitzeko

Esan bezala, *FHV* Mitxelenak urteetan egindako lan bikaina dugu, euskalki guztiak aintzat hartzen dituen eta zehaztasun fonetiko handiak eskaintzen dituen. Hala ere, agian honek beharturik, nahiko orokorra da euskalkiei dagokienez eta, oro har, hizkerak ez ditu sakon aztertzen. Horregatik, Mitxelenaren bidetik hizkeretan oinarritutako azterketa sakonagoak egin beharko liratekeela uste dugu, zeresan handia ekar baitezakete euskararen historia edo etorkizuna hobeto ezagutzeko.

7. Bibliografia

- Arana Martija, Jose Antonio, 1976, "Gabon Kanta de Guernica de 1757", *Euskera* XXI, 89-98.
- _____, 1984, "Sebastian Antonio de la Gandara Bizkaiko idazlea", *Euskera* XXIX, 499-510.
- Bilbao, Gidor, 1997, "De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak: I. *Doctrina christinaubarena*" *ASJU* XXXI-1, 247-336
- _____, 1998, "De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak (II)", *ASJU* XXXII-1, 165-229.
- _____, "Bermeoko XVIII. mendeko hirugarren eskuizkribua", argitaratu gabe.
- Kaltzakorta, Xabier, 1999, "Sebastian Antonio de la Gandararen euskal lanak", *Euskera* XLIV, 129-209.
- Lakarra, Joseba A., 1996, *Refranes y Sentencias (1596). Azterketa eta Edizioa*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- Mallea, Idoia, 2002, *Mendata, gure geurea danentzat*, Elkar, Loiu.
- Mitxelena, Koldo, 1977, *Fonética histórica vasca*, 2^a ed. corregida y aumentada, "Anejos de *ASJU* 4", Donostia-San Sebastián, 1961.
- Navarro Tomás, T., 1923, "Observaciones fonéticas sobre el habla de Guernica" (pp 50 y s.), *Tercer Congreso de Estudios Vascos*. 49-56.
- Zuazo, Koldo, 2008. *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Elkar Donostia.